Irigaray Osés alkateak 2024ko urriaren 5etik abenduaren 10era eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

**3.- 2025EKO ZERGA-TASAK ONARTZEA**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza, eta indarrean dauden tasa berak mantentzea proposatu du, lurralde-kontribuzioarena izan ezik. Kontribuzio hori igotzea proposatu du, 2020ko abenduaren 18ko erabakia betez, eta karga-tasaren % 0,02ko igoera aplikatzea, % 0,25era iritsi arte. Karga tasa hori legeak exijitzen duen minimoa da, eta, beraz, lurralde kontribuzioaren karga tasa 0,23tik 0,25era pasatzen da, hau da, gaur egungo araudia ezartzea eskatzen duena, eta ekitaldi honetan azken urteotan egin den pixkanakako igoerari bukaera emanen zaio.

Udalbatza ados dago Irigaray Osés alkateak egin duen proposamenarekin eta 2025eko presio fiskala onartu du. Hona hemen:

1. Ehuneko 0,25eko karga-tasa jartzea hiri-lurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko (landa eta hiri kontribuzioa)
  2. Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko. (Gutxieneko tarifa 30,00 €).
  3. Ekonomia-jardueren gaineko zerga: aurten, 1.000.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten subjektu pasiboek ez dute zerga hori ordaindu beharko. Behartutako subjektuak: 1,4 aplikatzea.
  4. Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehieneko portzentajeak aplikatzea eta karga-tasa %8,5ekoa izatea.
  5. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Gobernuak ezarritako tarifak.
  6. Etxeko egur-lote bakoitzeko 30,00 euroko tasa jartzea.
  7. Udaleko gainerako zerga-ordainarazpenei KPIa ez aplikatzea
- Erabaki honek 2025eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

#### **4.- 2024KO AURREKONTUKO ALDAKETAK.**

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza eta adierazi du beharrezkoa dela bilkuraren espedientean dagoen aldaketa onartzea, Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langileen kostuan izandako igoera batzuen ondorioz. Gai juridikoa denez, Udalbatzako idazkariari eman dio hitza, proposatutako aldaketaren zergatia azal dezan.

Idazkariak hartu du hitza eta Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko funtzionarioek, lehen lan-kontratudunak zirenak, aitortu gabeko hiru urtekoak finkatzea eskatu dutela adierazi du. Azaldu duenez, prozesu horretan, langileak antzinasun-osagarria hiru urtean behin jasotzetik, aitortuta zuten bezala, bost urtean behin jasotzera pasatu ziren, lehendik jasotzen zutena baino zenbateko txikiagoan, Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginean jasotzen den bezala. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 2024ko ekainean, hainbat epai eman zituen Nafarroako toki-administrazioan lan-araubide bat izatetik funtzionario-araubide bat izatera igaro ziren langileei ordainketa hori aitortzeari buruz, Auzitegi Gorenaren doktrinari jarraituz. Eta, horregatik, eskubidea dutenez, atzeraeraginez ordaindu behar zaizkie sortutako diferentzia horiek.

Horiek horrela, udalbatzak honako aurrekontuko aldaketa onartzea erabaki da aho batez:

#### **AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO TXOSTENA 2024. URTEALDIRAKO. HONA HEMEN LABURPENA:**

##### **1.- AURREKONTUKO ALDAKETAK**

<b>KONTUSAILA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<b>2311 4630000</b>	<b>Auñamendi Mankomunitatea</b>	<b>6.283,35</b>
<b><i>ALDAKETAK OSOTARA</i></b>		<b>6.283,35</b>

##### **FINANTZAZIO ITURRIAK**

<b>KONTUSAILA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<b>87000</b>	<b>GASTU OROKORRAK ETA UKITUTAKO BALIABIDEAK DAUDELAKO</b>	<b>6.283,35</b>
<b><i>FINANTZAZIO ITURRIAK GUZTIRA</i></b>		<b>6.283,35</b>

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikularekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan. Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsizat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

## **5. 2025EKO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREI IZENDUN ZUZENKETA BERRESTEA**

Irigaray Osas alkateak hartu du hitza, eta berretsi nahi den zuzenketa eragin duten gertaeren segidaren berri eman du.

Azaldu du nola hasiera batean zuzenketarako proposatu zen Maisuen etxeko teiltua berreraikitzea, ondoren alokairu sozialeko etxebizitza bihurtzeko 150.000 €-ko aurrekontuarekin. Proposamena Geroa Bai, EH Bildu eta Contigo/Zurekin talde parlamentarioek onartu zuten, lehen bi taldeek 70.000 € jartzen zituztela bakoitzak eta hirugarren taldeak gainerakoa. Hala ere, Geroa Baik hasiera batean 7.600 € jarri zituen eta Contigo/Zurekinek ez zuen ekarpenik egin, beraz, egoera bideraezina zen, nahiz eta Geroa Baik bere ekarpena 20.000 €-raino igo duen eta ekitaldi honetan ezinezkoa zaiola kopurua handitzea jakinarazi duen. Beraz, teiltuaren eraberritzea bideraezina izaten jarraitzen du Udalak dirurik ez duelako. Hala ere, taldeek beharrezkotzat jotzen dute obra hori egitea Pirinioak garatzeko eta despopulazioa geldiarazteko, eta, beraz, finantzaketa aztertuko da etorkizunean.

Egoera horretan, EH Bilduk proposatu zuen dagoen partidara egokitzen den proiektu bat aurkeztea, horretarako “in voce” zuzenketa bat aurkeztuz, eta kontuan izanik udal-titulartasuneko Frontoiko tabernaren eraberritzeak eta isolamenduak nekez egiten duela bat LGPren moduko deialdiekin, proiektu hori proposatu zen zuzenketarako, 90.000 zuzenketaren funtsekin eta 5.000 udal-kutxan kontura.

Udalbatzak erabaki du aho batez Pilotalekuko tabernaren birmoldaketa eta energia eraginkortasunaren hobekuntza proiektua 2025eko Nafarroako aurrekontu orokorretara aurkeztea.

## **6.- PROIEKTUA ETA LGP DIRULAGUNTZA ESKATZEA ONARTZEA**

Irigaray Osas alkateak hitza hartu du eta azaldu du heldu den urtean herriko bi gertakari garrantzitsuen 500. urteurrena izanen dela. Alde batetik, Frantzisko Jaso eta Azpilkuetak (San Frantzisko Xabierkoa) garai hartan Xabierren etxekoa zen errota errentan hartzeko egin zuen bisita, eta bestetik, sorginkeria kontseilua, haren ondotik plazan bost pertsona erre zituztela.

Gertaerak gogoratzeko Auritz 1525-2025 proiektua prestatu dela eta monolito bana eraikitzeke asmoa dagoela, bata Loizu hotelaren ondoan, errota ikusten den lekuan, eta bestea eliza ondoko plazan, bost pertsonak erre zituzten lekuan. Gainera, bi efemerideak gogoratzeko, urtean zehar egingo diren hitzaldi eta argitalpenekin indartuko da. Udalbatzak aho batez erabaki du Auritz 1525-2025 proiektua Landa Garapeneko Planaren deialdira aurkeztea.

## **7.- BAKE EPAILEAREN DEIALDIA ONARTZEA**

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du Justizia Ministerioaren jakinarazpena jaso dela Tokiko Justiziako karguak berritzeko eskatuz (Bake Epailea eta ordezkoa), Udalaren eskumena delako.

Udalbatzak aho batez erabaki du deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta hautagai bat baino gehiago egonez gero, zozketa egingen da izendapena proposatzeko.

## **8.- MAIORLATEGIAN, 6 POLIGONOKO 25 LURZATIAREN ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIA**

Juandeaburre zinegotzia bileratik atera da ahaidetasun arrazoiak direla eta.

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza eta Maiorategia parajeen dagoen eta errealtatearekin bat ez datorren katastroko 25. partzelaren (6. poligonoa) katastroaren ezarpena zuzentzeko eskaeraren berri eman du. Gehitu du eskatzaileak jabetza eskriturak eta eraikinaren altxaera topografikoa aurkeztu zituela, eta dokumentazio hori guztia Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalera bidali zela, horri buruzko informazioa eman zezan, aldaketak eragina baitu Aurizko herrilurretako katastroko poligono bereko 24, 26 eta 142 lurzatiaren edukieran Irigaray alkate jaunak jasota utzi nahi du, jasoketa topografikoaren ondorioz, 6. poligonoko 24., 26. eta 142. katastroko partzelen edukiera aldatu egingo dela, nahiz eta horien azalera osoan eraginik ez izan. Gaineratu du katastroko aldaketa horiek Agoizko Jabetza Erregistroko herrilurren edukiera aldatuko dutela. Horiek honako hauei dagozkie, hurrenez hurren: Aurizko 945 Erregistroko Finka, 37. orria, 2588. liburukia, 15. liburua; Aurizko 946. erregistro-finka, 38. orria, 2588. liburukia, 15. liburua, eta Aurizko 898. erregistro-finka, 205. orria.

Txoten faboragarria jaso ondoren, Irigaray Osés alkateak proposatu du eskatutako aldaketa onartzea.

Udalbatzak aho batez erabaki du Maiorategia alderdiko 6. poligonoko 25. lurzatiaren aldaketa onestea, Nafarroako Gobernuko Herrilurren Zerbitzuak ezarritako moduan.

Juandeaburre zinegotzia aretora itzuli da.

## **9.- MARÍA APAT TURRILLAS ANDREARI ETA HELIODORO URDÍROZ APAT JAUNARI LURRAK SALTZEKO ESKRITURA PUBLIKOA EGITEA, UDALAK 1961EKO OTSAILAREN 5EAN ETA 1984KO IRAILAREN 7AN ERABAKITAKOAK**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du Ignacio Yoller Urdíroz jaunak Maria Apat Turrillasen eta Heliodoro Urdíroz Apaten ondasun eta eskubideen jaraunsle dela erakutsi duela, eta 5. poligonoko 213. katastroko partzelaren salerosketa eskrituratzeko urratsak eman behar direla adierazi duela. Zehaztu du Udalak azken urteetan horrelako kasuak jorratu dituela, eta horietan lursail bat saltzea erabaki dela, eta, gauzatu ondoren, ez dela salerosketaren eskriturarik egin. Hori egin behar denez, prozesua burutuko duten gestioak egiteko ahalmena eskuordetzea proposatzen du.

Hortaz, Udalbatzak erabaki du aho batez:

-Irigaray Osés alkate jaunari ahalmena ematea notario aurrean ager dadin eta 5. poligonoko 213. katastroko lurzatiaren salerosketa eskritura gauzatzeko behar diren agiriak sina ditzan;

Agoizko Jabetza Erregistroan, lurzati hori Aurizko 887. erregistro-finkari dagokio (204. folioa, 2505. liburukia, 14. liburua).

-Ignacio Yoller Urdíroz jaunari erabaki honen berri ematea, dagozkion ondorioetarako.

#### **10.- TOKIKO FESTEN 2025EKO EGUTEGIA**

Udalbatzak erabaki du aho batez alkateak proposatu duen herriko festen egutegia onartzea, aurrez herriko gazteekin adostu eta gero. Hona hemen:

Inauteriak: Otsailak 21 eta 22.

Udaberriko edo Gurutze Santuko Feria: Maiatzaren 4a.

San Juan bestak: Ekainaren 20a, 21a, 22a, 23a eta 24a.

Eskulangintza Azoka: Abuztuak 15

Larrazkeneko feria: Irailaren 21a

Bariko San Nikolas: Abenduaren 6a.

#### **11.- VALENTZIAKO DANAK KALTETUTAKOENTZAKO DIRU-LAGUNTZAREN BERRESPENA**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza, eta proposatu du 150/2024 Ebazpena berrestea, joan den urriaren 29an Valentzian izandako Danak kaltetutakoei laguntza ekonomikoa emateko espedientean jasota dagoena. Jakinarazi du dirulaguntza Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez bideratuko dela.

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta esan du Valentzian gertatutakoak bezalako muturreko fenomeno naturalak gero eta ohikoagoak izango direla eta horretatik ez dagoela libre planetaren zonalde bat bera ere klima aldaketaren ondorioz, nahiz eta askok ukatu gizakiak aldaketa horretan duen eragina, eta horrek gure eguneroko bizitzan, kolektiboki zein indibidualki, aldaketa ahal den neurrian geldiarazteko eraman behar dugun jarreraz hausnartzera bultzatu behar gaituela.

Azanza zinegotziak gaineratu du behar ez den lekuan eraiki dela, eta orain ondorioak datozela. Irigaray Gil zinegotziak berretsi du iritzi hori, eta uste du aldaketa hori hirigintza-plangintzan ere kontuan hartu behar dela.

Azalpenaren ondoren Udalbatzak erabaki du aho batez 150/2024 ebazpena berrestea. Hona hemen:

*Danaren ondorioz Valentzian gertatutakoa ikusita eta Udaleko zinegotziei galdetu ondoren,*

*EBATZI DUT:*

*1.- DANAK kaltetu dituen herri eta pertsonen 500 euroko laguntza ematea.*

*2.- Laguntza NUKFaren bitartez bideratuko da.*

*3.- Ebazpen hau osoko bilkurak berretsiko du.*

#### **12.- A-25 ADIERAZPEN INSTITUZIONALARI ATXEKITZEA BERRESTEA**

Irigaray Osés alkateak hitza hartu du eta proposatu du genero indarkeriaren aurkako eguna ospatzeko adierazpen instituzionala berrestea eta Udalbatzak hori berrestea erabaki du aho batez.

*Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko adierazpen Instituzionala*

*EZ DA ANTZERKIA, INDARKERIA BIKARIOA DA*

*Gaur, azaroak 25, Nafarroako toki eta lurralde entitateok, beste behin ere, emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak irmoki gaitzesten ditugula adierazi nahi dugu. Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak zein haurrak beldurrik gabe, mehatxurik gabe eta beren eskubideen berme osoarekin bizi ahalko diren. Aurten, indarkeria horren modu suntsitzaile eta krudelenetako batean jarri nahi dugu begirada: indarkeria bikarioan.*

*Matxismoaren muturreko adierazpen bat da, eta emakumeak kaltetzea du helburu.*

*Horretarako, erasotzaileak bere gertuko jendea erabiltzen du, batik bat seme-alabak, emakumeari ahalik eta kalte emozional handiena eragiteko. Indarkeria mota horrek aztarna ezabaezina uzten du jasaten dutenengan, eta, kasu askotan, neska-mutilen heriotza eragin dezake. Indarkeria mota horretan, agerian geratzen dira indarkeria matxistaren ezaugarri diren botere-dinamikak: erasotzaileek ez dituzte beren haurrak izaki independente gisa ikusten, bikotekideen gaineko kontrolaren hedapen gisa baizik. Are gehiago, indarkeria bikarioak emakumeak etengabe zalantzan jartzen dituen gizarte baten konplizitatea du, emakumeak agintetik kendu eta haien hitza zalantzan jartzen duena.*

*Hori dela eta, leloak “Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da” dio.*

*“Hildako adingabeak amaren aurkako genero-indarkeria kasuetan, Espainian” izenburuko txostenaren arabera, 2013tik 2024ko urriaren 14ra bitartean guraso biologikoek, amaren bikotekide ohiek hildako adingabeen behin-behineko datuen kopurua 63 da, % 49 neskak eta % 51 mutilak. 2024an 10 kasu zenbatu dira (6 neskato eta 4 mutiko), azken hamarkadako kopururik altuena. Horregatik, funtsezkoa da errealitate konplexu hori aztertzea eta politika zehatzak aplikatzea ahalbidetzen duten informazio sistemak bermatzea.*

*Azken urteotan, kasu lazgarrien berri izan dugu, zeinetan adingabeak akabatu diren haien amak zigortzeko helburu hutsarekin. Ezin dugu onartu indarkeria bikarioaren biktima gehiago egotea; ezta adingabeen bizitza emakumeen aurkako indarkeria betikotzeko tresna bihurtzea ere.*

*2021ean onartutako Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko Lege Organikoak arautzen duenez, adingabeko seme-alabak genero-indarkeria egoeran bizi direla adierazten duten zantzu sendoak daudenean, agintaritza judizialak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, indarkeriaren egileari eten egingo zaio bere mende dauden adingabeei egin beharreko bisita-araubidea.*

*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2022an, genero-indarkeria kasuetako % 8an baizik ez zen gurasoei bisita egiteko erregimena eten. Horren harira, NBEk Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruz duen kontalari bereziak sarri defendatu du erabaki judizialek mesede egiten dietela gizonei. Izan ere, emakumeen testigantzak ez dira gizonenak bezain sinesgarriak, aurreiritziak, generoari lotutako estereotipoak eta joera diskriminatzaile patriarkala direla eta.*

*Gure ustez, genero indarkeriaren arloan gure sistema juridikoan aurrerapen ukaezinak egin diren arren, arrakala handia dago oraindik Legearen eta haren aplikazio praktikoaren artean.*

*Arazoaren larritasuna dela eta, premiazkoa da indarkeria matxistaren adierazpen horien biktimak babesteko sistemen funtzionamendua eraldatzea.*

*Ezinbestekoa da gure politikak eta baliabideak indartzen jarraitzea indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko, baita ikusezinenei ere, indarkeria bikarioari, psikologikoari edo manipulazioari zein indarkeria instituzionalari. Emakumeek eta adingabeek bakean bizitzeko eskubidea dute, eta tokiko eta lurraldeko entitateek funtsezko erantzukizuna dugu alde horretatik. Ezin dugu beste alde batera begiratu; oinarritzko giza eskubideak urratzen dituen indarkeria hori prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromiso irmoa eta kolektiboa hartu behar dugu .*

*Hori dela eta, Nafarroako toki eta lurralde entitateetatik ondorengo konpromiso hauek hartu ditugu:*

*1. Indarkeria bikarioari buruzko berariazko sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, indarkeria-mota hori ikusarazteko eta herritarrak haren ondorio suntsitzaileen inguruan kontzientziatzeko.*

*2. Toki- eta lurralde-entitateetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (poliziak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta abar), indarkeria bikarioaren kasuak antzeman eta modu goiztiar eta eraginkorrean jokatu ahal izateko.*

*3. Babes integraleko neurriak bultzatzea, emakumeentzako eta haien seme-alabentzako, dituzten beharrak kontuan hartuta: arlo psikologikoan, juridikoan zein sozialean baliabideak izan ditzaten bermatuz, eta erreparazioa eta autonomia ahalbidetuz.*

*4. Herrialdeko Administrazioaren eta tokiko entitateen arteko ekintzak koordinatzea, indarkeria bikarioaren aurrean erantzun azkar eta eraginkorra bermatzeko, legehutsuneak saihestuz eta biktimen berehalako babesa bermatuz.*

*5. Tokiko berdintasun politiketan indarkeria bikarioaren ikuspegia txertatzea, indarkeria matxista prebenitzeko eta desagerrarazteko ekintzetan zehar-lerro gisa egon dadin.*

*Aurten, Azaroaren 25ean, berdintasunean oinarritutako jendarte justu bat eraikitzeko konpromisoa berresten dugu, emakumeen aurkako indarkeriarik eta indarkeria bikariorik onartuko ez duena. Eta lanean jarraituko dugu haur eta emakume guztiak, duintasunez, askatasunez eta autonomiaz bizi daitezen.*

### **13.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA**

Irigaray Oses alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

#### **Bilera Nasuvinsarekin**

Aditzera eman duenez, Nasuvinsak kudeatzen dituen Udaleko pisuetako bizilagunen kekek jaso ondoren, Udalak sarbidea, eskailerak eta igogailua erabiltzen dituelako, bilera bat egin zen Nasuvinsako arduradunekin, eta, aurrerantzean, Udalak hilero 34 euroko tasa ordainduko du espazio horiek erabiltzeagatik eta mantentzeagatik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **PSTD hitzarmena sinatzea Nafarroako Gobernua-Cederna Garalur**

Joan den urriaren 18an, Udal honek Espartza-Zaraitzun egin zen PSTD hitzarmena sinatzeko ekitaldian parte hartu zuen. Bertan, Rebeca Esnaola Turismo, Kirol eta Kultura sailburuak eta Arantxa Arregui Cederna-Garalurreko lehendakariak parte hartu zuten. Aurizko Udalak funts horiek baliatuko ditu Kultur Etxearen inguratzailea hobetzeko. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirinioko Mahaia**

Joan den urriaren 30ean Nagoren parlamentu-batzorde bat egin zen Pirinioetako mahaiaren eta Nafarroako Parlamentuko ekialdeko Pirinioetako ponentziaren artean, eta VOX ez beste parlamentu-arku osoko ordezkariak joan ziren. Bileran mahaiak aurrekontuei begira dituen proposamenak landu ziren.

Proposamen gehienak Pirinioetako zainketekin, garapen industrialarekin eta etxebizitzaren sustapenarekin lotutako proiektu estrategiko desberdinei buruzkoak dira, baina ez dira Nafarroako 2025eko aurrekontu orokorretan jaso

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Elurra garbitzeko lanak Carlos Leache Arreseri adjudikatzea**

Aurkeztutako proposamen bakarra izanik, eta prezioa esleipendunarekin negoziatu ondoren, Carlos Leache Arrese jaunari esleitu zaio elurraren garbiketa hiru denboraldirako (24-25,25-26 eta 26-27), orduko 70 euroren truke.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Eskola maparen aldaketa**

Hezkuntza Sailak Irunberriko Institutua laster irekiko zela eta eskola-mapari buruzko kontsulta egin ondoren, eta familia guztiak jarrera bateratua adosteko bilerara deitu ondoren, aho batez erabaki zen erreferentziako zentro gisa IES Eunate BHI mantentzea. Gainera, Departamentuari eskatu zitzaion Pirinioetako biztanleen aldeko diskriminazio positiboa mantentzea eta familien garraio gastuak ordaintzea.

Udalbatza jakitun da.

### **Lan eta bizi dirulaguntza.**

Pirinioetako Planaren esparruan bizi eta lan egiteko diru-laguntzen deialdira aurkeztutako proiektua izan da aurkeztutako proiektu guztien artean puntuaziorik onena lortu duena, 84 puntu lortu baititu. Hala ere, Udal honen iritziz interpretazio okerra egin denez, proiektua ezetsi egin da eta, beraz, ez da dirulaguntzarik jaso. Egoera berean geratu dira Abaurregaina, Ezkaroze eta Nagore Zentzu honetan, aurkeztutako proiektuak oinarriak betetzen zituenez eta herriaren garapen sozialerako proiektu estrategikotzat jotzen zenez, ebazpen horri errekurtsoa aurkeztu zaio.

Nabarmendu nahi nuke ez direla kontuan hartu Pirinioetako toki entitateek gure herrietan proiektu estrategikoak egiteko ditugun berezitasunak eta zailtasunak. Bere ustez, Zuzendaritza Nagusiak ez ditu kontuan hartu hainbeste aipatzen dituzten Pirinioetarako 5 minutuak, eta deialdia erabat ikuspegi hiritarrarekin ebatzi da. Beraz, uste du lan egin behar

dela Nafarroako Gobernuari eskatzeko berriro lan egin dezala bere erabakiek gure lurraldean izan ditzaketen ondorioetan gutxienez 5 minutuz pentsatzeko perspektibarekin. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Herri lanak**

Azken hilabeteotan ondorengo lanak burutu dira: TAP Kanaleburua asfaltatzea, frontoiko teilatua konpontzea, mendebaldeko aldapak asfaltatzea eta belaunaldien arteko parkearen pergola konpontzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Ur-hornidurako sareko ihesak**

Ihesak zirela eta, Ciaqua enpresaren zerbitzuak kontratatu ziren, ihesak non zeuden jakiteko. Lau aurkitu dira, eta, oraingoz, horietako batean jardun da. Gainera, aurretik Udalaren kontura beste hiru jarduketa egin dira, aguazilarekin eta iturginarekin batera. Arazoa guztiz konpondu ez den arren, biltegia egonkor dago, eta uraren %100 hornitzen du iturburuak. Ura kalitate handikoa da.

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta, Kanaleburukoa ikusita, polemikarako asmorik gabe, bere garaian Kanaleburuan eta Orreaga kalean obrak egiteko gabeziei buruzko 1999ko irailaren 28ko bilkurarako deialdia eragin zuten argudioak berretsi ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirineaus II.**

Pirineaus II proiektua abian jarri dela Luzaideko Udalarekin, Donazarreko Udalarekin eta Aranzadirekin batera, Euroeskualdearen aterkipean. Alderdi guztien arteko topaketa izan da, 2025. urtean garatuko diren jarduerak adosteko. Indusketekin eta galtzada erromatarrarekin lotutako hitzaldi zikloa egingo da uztailan Auritzen, Aranzadik Zalduan antolatzen dituen ohiko ate irekiak aprobetxatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Auritz 1525-2025**

Auritz 1525-2025 proiektua lantzen hasi dira, sorginkeria leporatuta bost pertsona erre zituzten Hiribilduko plazan ospatutako Sorginen Kontseiluaren efemeridea oroitzeko urteroko programa sortzeko. Gainera, Pirinio osoko erakundeekin batera, gaia lantzen ari dira, modu bateratuan eta zeharkako eta eskualdeko ikuspegiarekin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **San Nikolas festak**

Abenduaren 5ean eta 6an herriko festa txikiak ospatu ziren, partehartze handia eta giro ona nabarmenduz.

Martínez zinegotziak esan du Irati-Orreaga elkartearekin bilera egiteke dagoela, eta bilera horretan azalduko direla egindako zerbitzuak eta ekintzak. Gogoratu du 699 € ordaindu gabe daudela.

Irigaray Gil zinegotziak jakinarazi du, Juandeaburre zinegotziarekin batera, Gongoran (Aranguren) azaroaren 26an, NELS Sarea osatzen duten udalerrien bileran izan zirela eta Eslabako ordezkaria aukeratu zutela lehendakari.

Azanza zinegotziak abenduaren 4an Erroibarko Udalarekin eta Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoko gainerako erakunde parte-hartzaileekin egindako bileraren berri eman du. Bilera hartan, Udalak beste barruti bat sortzeko eta egungoa ez bezalako kudeaketa egiteko asmoari buruz bilkuran hartutako erabakiaren berri eman zitzaion

#### **14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.